

Euskal Autonomi Elkarteko Arartekoa

Juan San Martin

Hirurogeita bost *ombudsman* bildu dira Gasteizen egin berri diren Europako III. jardunaldietan. Eta denek goraiatu dute Juan San Martinek eta bere taldeak orain arte egindako lana. Hala ere, oraindik egiteke asko dagoela uste du, herritarrek ikasi

dutelako nora jo Administrazioarekiko arazoak bideratzeko. Kezka bat du, ordea, beste guztien gainetik: administrazio ezberdinen erantzuna beti jasotzea, oraindik badagoelako Arartekoari jaramonik egiten ez dionik.



«Administrazio isiltasuna badago oraindik»

Europako Ombudsman-aren Institutuko lehendakariorde izendatu dute San Martin

FELIX IRIARTE / GASTEIZ

EGUNKARIA.— Gasteizera etorritako *ombudsman*-ek urte hauetan egin duzun lana goraiatu eta azpimarratu dute. Ezagunagoa zara kanpoan etxean baino?

SAN MARTIN.— Norbera ez da profeta bere herrian, baina ez nuke hainbeste esango. Beraiek ezagutu dute gure ekintza, jakina, hona etorri baino lehen izan zuten gure zereginen berri, eta ikusi zuten posible zela jardunaldiak hemen egitea. Baina harrিতa geratu ziren guk egindako lanarengatik.

EGUNKARIA.— Jardunaldi haue-
tan herrialdeko *ombudsman*-aren garrantzia izan da gai nagusia, baina Europako Batasunean Europako Ombudsmana izango da. Zein izango da bere zeregina?

SAN MARTIN.— Seguru asko, Maastrichten akordioaren arabera, Ombudsman bat izango da Europa guztirako, baina oraindik ez da legez-tatu bere zeregina. Uste dugu besteekin koordinatuta egon behar duela, baina Europako Parlamentuak erabaki beharko du hori.

EGUNKARIA.— Zertan oinarritu beharko litzateke koordinazio hori?

SAN MARTIN.— *Ombudsman* ba-koitzak bere legea du, denok ez dugu berdina. Batzuk, gainera, zorixarrez ez datoz legebiltzarrek agindua eman dietelako, gobernuak baizik, eta horiek ez dira eredurik interesgarrienak. Interesgarriena Suediako eredu-
da, Legebiltzarreko aginduarekin herritarrek defenditzeko Gobernuaren aurrean.

EGUNKARIA.— Orduan egungo *ombudsman*-en artean ikuspuntu ezberdinak egongo dira. Zehaztuko zenituzke horiek?

SAN MARTIN.— Frantzia, esaterako, *ombudsman*-a Gobernuak izendatu zuen, eta honen babespean egiten du ikerketa. Eta hori ez da eredurik onena. Beste eredu bat dago Legebiltzarrek eskari batzordearen bidez sortzen duena. Baina batzorde horretan talde politiko guztiak daude, eta hor gertatzen da bada gairen batek zerikusia badu politikarekin manipulatu egiten dutela,

*Ombudsman
interesgarriena
Suediako eredu-
da, Legebiltzarren
aginduarekin
jarduten delako.*

konponketa adostasun bidez egiten dute. Eta horrek arrisku bat du talde batek zerbait ikertzea eragotziko duelako eta beste batek onartu egingo dio bere kalterako izan daitekeen besteren bat ez ikertzeko. Horregatik hori ere ez da eredu ona. Gainera kexa duena isilean gordetzea horriela ez da posible, baina bai ordea, *ombudsman*-aren bidez. Guk gaia agertzen dugu, kontuak eskatzen dizkiegu administrazioei, baina ez dugu esaten kexa azaldu duena nor den, zer bai baina zein ez.

EGUNKARIA.— Europako Ombudsmanaren Institutuko lehendakariorde izendatu zaituzte. Zer irabaziko du horrekin EAEk eta Arartekoak?

SAN MARTIN.— Arartekoak ospea, eta horrek beti dakar eraginen bat Arartekoaren zabalkuntza lortzeko, eta horregatik interes handikoa da. Bestalde, lana, ekitaldi batzuetara joan behar izatea, Vienara laster batean ziur aski. Han gure zereginaren berri emango dugu, besteak beste, nola bideratzen ditugun hemengo arazoak eta bide batez besteek nola egiten dieten aurre ezagutzeko aukera izango dugu.

EGUNKARIA.— Lehendakari-
za horrek lagunduko du Arartekoak ezagunagoa izan dadin?

SAN MARTIN.— Bai. Itzal bat ematen dio Arartekoari, errespetu gehiagorekin lan egiteko, nolabaiteko errekonozimendua ematen dio. Bestetik Institutu hori bultzatzea nahiko genuke. Institutuak ez du boteririk, baina *ombudsman* guztiekin harremanak sendotzeko aukera ematen du, eta bi urtetik behin egiten diren jardunaldietan harremanak sendotzen dira. Guk iritziak trukatatu behar ditugu, ideiak zabaldu, besteen arazoak ezaguturik



«Jendeak bidea ikasi du eta badaki nora jo» dio Arartekoak.

SOSLAIA

Mendia zaletasun

«**K**argua zama bat da», aitortu digu Euskal Autonomi Elkarteko Arartekoak. Hala ere, zama ondo eroaten dakiten horietakoa da Juan San Martin. Kargua hartu aurretik irakurtzen, euskararen inguruan lan egiten eta Euskal Herriko mendietan ematen zuen denbora. Orain zaletasun horiek, ahaztu ez dituen arren, neurri batean utzi egin behar izan ditu Ararteko kargua egokiro betetzeko. Beno, den denak ez. Oraindik ere noizean behin, asteburuetan bereziki, mendira joaten da mendizaletasunaren harra kentzeko. «Arnasa ematen dit mendiak», dio San Martinek. Irakurri, aldiz, nahi baino gutxiago irakurtzen duela aitortu du. Eta pena handia dauka, Menendez Pelayo intelektualak, arrazoi berberagatik, hil aurretik sentitzen omen zuen pena bera. «Pena dut nahi dudan guztia irakurri gabe bukatuko dela nere bizitza», dio, irribarretsu, Eibarren gerra aurreko giroa inork baino hobeto ezagutu zuen San Martin agnostikoak.

«Guk nahi duguna, azken finean, legeak argiak eta zehatzak izatea da eta hutsunerik ez agertzea».

norberarenak hobetzeko, eta hori da hain zuzen jardunaldiak egiteko arrazoia.

EGUNKARIA.— Kexak ugari-
egin dira azken urteotan. Zeintzuk dira arrazoiak, agian Administrazioak akats gehiago egin dituelako ala herritarrek hobeto ezagutzen dutelako Arartekoak?

SAN MARTIN.— Jendeak bidea ikasi du. Arartekoak dagoenetik, herritarrek badakite nora jo Administrazioarekin arazoren bat izanez gero. Hasieran arazo pribatuekin zetozen guregana, baina orain ez, badakitelako ezin ditugula arazo horien inguruan ezert egin. Administrazioan oraindik badago isiltasuna, agian, ez zaituelako interesatzen erantzunik ematea. Lehen halako kasuetan bada auzitegi-tara joko zuten baina orain guregana etortzen dira guri nahitaez, legez, erantzun behar ditugutelako. Lortzen ditugu erantzunak.

EGUNKARIA.— Baina norbait egongo da kasurik egiten ez duenik. Zer egiten duzu orduan?

SAN MARTIN.— Gehienek onartzen dute gure gomendioa. Gero Legebiltzarri aurkeztzen diogu egin dugun lana, gomendioak, zeintzuk onartu dituzten eta zeintzuk ez. Gero politikoek hartu beharko dituzte neurriak, bestela arriskua izango dutelako botoak galtzeko. Beste batzuetan mintu egiten dira eta esaten digute ez daudela ados gure gomendioekin. Orduan legea non hobetu behar den zehazteko eskatzen diegu. Guk nahi duguna, azken finean, legeak argiak eta zehatzak izatea da eta hutsunerik ez agertzea. Eztabaidak agertzen dira legeak zehatzak ez direlako eta gizartearen erantzuna ona ez delako. Orduan gure gomendioak lege horiek aldatzea izaten da.